

Joseba Gabilondo Marques

HARRO! PLATAFORMAKO KIDEA



TRANSMARIBIBOLLO IKUSPEGITIK JENDARTEA HEZTEN

"Jaiotzez Eskoriatzakoa, gaztetatik ibili naiz herri mugimenduan: Eskoriatzako lokalean, Gazte Asanbladan, euskalgintzan, ekologismoan, ... baita politikan ere. Esango nuke Kitzikan antolakundearekin estreinatu nintzela transmaribibollo mugimenduan, eta gero Hiruki Larroxa Kolektiboko kide izatera igaro nintzen. Bertan dihardut gaur egun ere, eta Ekainak 28 Koordinadorako zein Harro! plataformako parte gara. Gizarte hezitzailea naiz ikasketaz, eta Hiruki Larroxa Kolektibotik esku hartze soziala egiten dugu LGBT+ eta hezkidetzeta gaietan, baita gizonen desboteretze saioak ere. Lukast Prest! hardcore taldeko abeslaria ere banaiz".

"Garrantzitsua da nondik gatozen gogoratzea"

Borroka transmaribibolloan bide luzea egindakoa da Joseba Gabilondo Marques (Eskoriatza, 1984). Hiruki Larroxako kide da, maiatzean sortu berri duten Harro! plataforma osatzen duen kolektiboetako bat. Plataformak manifestazioa deitu du Bilbon irailaren 21ean, European Pride Organisers Association-ek (EPOA) asteburuan egingo duen bileraren aurrean desadostasuna agertzeko. Mobilizazioaren arrazoiez eta plataformaz mintzatu gara.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

EPOAren bisita, ospakizunerako aitzakia izatetik urruti, mobilizatorako arrazoitzat jo duzue.

EPOA EuroPride jaialdia antolatzen duen elkarte da, hainbat enpresa pribaturekin oso lotua, *Pride*-aren ideia oso merkantilista daukana. Bilbon elkartuko dira, erabakitzeke 2022ko EuroPride non burutu. Bilbok bere burua aurkeztu zuen bilera jaso eta antolatzeko –Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak 70.000€-tik gora bideratu dituzte bilera gauzatzeko–, baina ez da hautagaia. Jokaldi estrategiko gisa ikusten dugu: "*Bilbo gay-friendly da*" adierazteko. Bat baitator aurten Bilbao Bizkaia Pridegatik egin den apustu eta diru zahutzearekin. Bilbo zirkuito horretan nola sartu aztertzen ari dira, eta zirkuito hori turismo eredu txikitzailearekin oso lotuta dago.

Manifestazioa deitu dugu esateko hemen ez dugula nahi halako Harrotasun eredurik. Hasieratik markatzeko hemen herri mugimendua, transmaribibollo mugimendua, LGBT+ mugimendua ez daudela kode horretan.

Aipatu turismo ereduak, gainera, ez du bere baitan hartzen LGBT+

mugimendua bere osotasunean.

Turismoari lotuta *gay-friendly* hitza darabilte, eta hitzak bere baitan hartzen dituen horiei dago zuzenduta: gorputz kanon batzuk betetzen dituzten gizon zuri, europar eta dirudun gayei. Ez dituzte kontuan hartzen, adibidez, transexualak. Trans biztanleriak %85eko langabezia tasa pairatzen du, ziurrenik trans batek ezingo du *gay-friendly* diren hotel horietako batean gau batek balio duena ordaindu. Euskal Herrian Axel Hotels kateak ireki du halako hotel bat Donostian, eta Bilbon ere proiektatu du beste bat.

Bilera EAJk bere proiektu neoliberala aurrera eramateko estrategia gisa ulertu duzue.

Bai, lotura zuzenak daudelako EAJ eta Ortzadar LGBT+ [Bilbao Bizkaia Harro ekimenaren antolatzailea] elkar-tearen artean. Ortzadarrek ematen du urte asko daramatzala borrokan eta aktibismoan, baina duela gutxi sortutako elkarte da, Euskal Herrian aipatutakoa bezalako Harrotasunaren eredu txertatzeko, eta instituzioen diruak halakoetara bideratzeko. Hemen, *Pride*-aren atzean



"HARROREN BESTE HELBURU BAT DA SARETU ETA INDARRAK BATZEA, ERASO NEOLIBERALENGANDIK ETA FAXISTENGANDIK DEFENDATZEKO".

Ortzadar dago soilik, eta LGBT+ mugimendua aurka. Elkarte horretan dauden pertsonak dira parlamentariak, dira zinegotziak Bilboko Udaletxean... Lotura zuzena dago, eta bueno, badakigu herri honetan zer bultzatzen duen EAJK, ze hiri mota nahi duen.

Alegia, makro-ekimenen bidez bultzatzen ari diren hiri eredu neoliberalera bidean *Pride*-a ezin hobeto datorkiela. Horretarako LGBT+ borroka asimilatu behar dute.

Asimilazio potente bat ari dira egiten, eta hainbatean horregatik sortzen da Harro. *Pinkwashing* egiten dute. "LGBT+ gaiak interesatzen zaizkigu" diote, baina zertarako interesatzen zaizkie? Mugimenduaren parte izan ahal diren elkarte batzuk asimilatzeke, instituzionalizatzeko guztiz, instituzioen diruaren menpe jartzeko, nolabait instituzioen aurpegi garbiketaren buru izan daitezten. Instituzioek LGBTfoboak izaten jarraitzen dute ordea. Mugimendutik eskatzen dugu dirua beharrezko kontuetara bideratzea, zeren datuetan ikusten da *Pride*-aren asteburuan ikasleekin aniztasuna lantzeko formazioetan baino diru gehiago xahutzen dela.

Borroken asimilazioak berauek edukiz hustea dakar. LGBT+ kolektiboaren oinarri errebelde eta antikapitalistak arriskuan ikusi dituzue?

Ardurutzen gintuen. Nolabait esateko, memoria ariketa egitea ahaztu zaigu. Eta oroimenak garrantzia dauka, gogoratzeko nondik datorren borroka transmaribolloa. Ez ahazteko, adibidez, Stonewalleko matxinada abusu polizialen kontrako borroka izan zela. Hori oroitzu gero, jakingo dugu ezin diogula ongi etorria eman Gaylespol [polizia gay eta lesbianen elkarte] moduko elkarte bati. Badakigulako polizia zeren defendatzailea den: kapitalarena, sistema honena. "Baina polizia gay eta lesbianak ere badaude"; bale, oso ondo, baina poliziak dira. Uste dut LGBT+ komunitatearen barruan ari dela hedatzen "LGBT+ bada nahiko da" pentsamolde hori, beraz garrantzitsua da erroetara jo eta nondik gatozen gogoratzea. Hala ere, uste dut gehienok argi daukagula intersektionalitatik jardun behar dugula.

Oroimenari bere garrantzia ematen diozue plataforman. Ildo horretan, ikur gisa darabilzuen adreilu arrosak esanahi asko barnebiltzen ditu, ezta? Adreilua darabilgu sinbolo moduan, esa-

ten delako Stonewalleko matxinadan poliziaren indarkeriari adreiluekin erantzun ziotela. Eta larrosa kolorekoa da, naziek kontzentrazio esparruetan LGBT+ komunitatea bereizteko erabili zuten hirukiaren kolorea delako. Beste esanahi batzuk ere eman dizkiogu: erasorako, defentsarako edo suntsipenerako zeozer den era berean, eraikitzeke baliagarri ere bada. Eta horrek bat egiten du Harroren beste helburu batekin: saretu eta indarrak batzea, eraso neoliberal eta faxistengandik defendatzeko.

Euskal Herriak Stonewall propioa baduela ere gogoratu nahi izan duzue.

Aurten bete dira 40 urte Francis marika eta trabestia hil zutela Oretetan, Espainiako Polizia Nazional batek tirokatuta. Gertaerari Euskal Herriko Stonewall baten izaera eman nahi izan diogu, esan daitekeelako hor hasi zela Euskal Herriaren indarra hartzen momentu hartan gay mugimendua deitzen zena, gerora beste forma batzuk hartuko zituen. Francisen hilketak ekarri zituen bi-hiru egun oso potente, greba deitu zen, Oretetan geratu egin zen, ezohiko plenoa egin zen udaletxean, poliziak kargatu zuen, ke poteak sartu ziren plenora... Errelato hau berreskuratu nahi izan dugu. ●